

Alberto Barandiaran

KULTUR TRANSMISIOA
HEZKUNTZAN



KAZETARITZATİK HEZKUNTZARA, ETA BETI IKASTEN

“Altsasun jaio, Irunen hazi eta Iruñean bizi den baina inongoa ez den pertsona naiz. Historia ikasi, kazetaritzan lan egin eta orain hezkuntzan dabilena. Hobeto idaztea gustatuko litzaiokeen kazetaria, eta orain hezkuntzan buru-belarri sartuta dagoena. Asko ikasten ari naiz, asko ikasi dut egon naizen lan guztietan. Hori da niretzat lan arloan izan dudana suerterik handiena, ikasteko aukera handia izan dudala. *Euskaldunon Egunkarian* eta *Berrian* 20 urtez egon nintzen, baina gero probatu ditut gauza ezberdinak, eta alde horretatik, profesionalki, etapa oso interesgarrian nagoela uste dut”.

“Esperientziarena da euskal kulturak irabazteko duen bataila”

Kazetaritzaren eremua atzean utzita, Nafarroako Gobenuko Hezkuntza Departamentuan ari da azken urteetan Alberto Barandiaran (Altsasu, 1964). Dena den, euskal kulturarekiko engaiamenduari eutsi dio lanbide berrian ere, eta transmisioaren alorrera bideratzen ditu ahaleginak. Zeregin horretan, *Musikariak Ikastetxeetan* programa lantzen aritu da azken ikasturteetan, beste hainbatekin batera. Orain, irakasgai berri bat abiatuko dute, euskal kultura ezagutarazi, eta batez ere, ikasleak horren bueltan sortzera bultzatzeko.

✂ ANDER PEREZ 📷 JOSU SANTESTEBAN

Esaten da gaur egungo gazteek ez dutela euskal kultura ezagutzen. Ados al zaude?

Beti aipatzen da transmisioaren garrantzia, eta aipatzen da hedabideen lana edo kultur eragileena, baina hezkuntzaz ez da hainbeste hitz egiten. Iratxe Retolazak eta Amaia Serranok lan bat egin zuten: haiek irakasle izango diren horien irakasle dira. Eta ziotenez, irakasle izango diren horiek –eta askotan, kulturarekin lotura zuzena izango dutenak–, unibertsitatean iristean ez dakite ia ezer euskal kulturaz. Iaz, Azpeitian, jardunaldi batzuk egin ziren, eta gonbidatu gintuzten, *Musikariak Ikastetxeetan* programa aurkezteko.

Zergatik?

Kezka berdinarekin lotuta dagoelako. Duela hiru bat urte, euskal musika hezkuntzan sustatzeko ikastaro batean, ondorio bat atera zen: zergatik ez ikasleak musikariekin harremanetan jarri? Orduan antolatu genuen programa, arrakasta handiz. Iruñerrian D ereduan ikasten duen

gazte batek –eta ez dago alde handirik Iruñea, Donostia, Gasteiz eta Bilboren artean–, 18 urterekin, zer ezagutzen du? Euskal kulturarekin harremana badu, batez ere musika-rekin izango du: maite du, konpartitzen du, joaten da kontzertuetara. Esan genuen: goazen ezagutzen dituzten artistak haiengana eramatera.

Hor omen dago programaren arrakastaren giltza.

Hezkuntzak ezagutza eman behar du, baina azala, sentsazioa eta esperientzia ere eman behar ditu. Noski, egon behar dira edukia eta ebaluazioa, baina bestea ere bai. Euskal kulturak eta euskarak irabazteko duten espazioa hori da, esperientziarena. Euskarak oso zaila du ingeles edo espainiar musikarekin lehiatzea, ez bada sentimenduen eta esperientziaren bidez. Hemengo gaiez ari dira hemengo musikariak, idazleak, bertsolariak. Hori da engantxatzeko modua. Lortzen bada gazte horrek esperientziaren bidez lotura bat sortzea, bihurtuko da kontsumitzaile, eta akaso sortzaile ere bai.



"IZENAK ALDATZEN DIRA: ZURETZAT OSO INPORTANTEA IZANGO DA TXIRRITA ETA LABOA EZAGUTZEA, ETA BESTE BATENTZAT SKABIDEAN, EDO ANARI, EDO OIHANA BARTRA. ESPERIENZIA DA INPORTANTEA".

Zerk huts egin du hezkuntzan, transmisio hori kolokan egoteko?

Hezkuntza gauza arautua da, batzuetan zurruna, eta batzuetan hezkuntzaren kontra egiten da, helduek ezarritako zerbait delako. Hor interesa piztea ez da erraza. Ez da beti asmatzen edukiak plazaratzen, ezagutzatik kontsumora pasatzen, eta hori etengabeko gogoeta da hezkuntzan. Arazoetako bat da euskal kultura ez dagoela bloke gisara kontsideratua curriculumean.

Hain zuzen ere, zer toki du euskal kulturak Nafarroako curriculumean?

Aipatzen da euskal kultura transmititu eta sustatu beharra, baina eremu lauso samarra da. Egiten da, baina ez dago araututa. Horregatik, *Sormen digitala* hautazko irakasgaia eskainiko dugu aurtengo zazpi ikastetxetan, euskal kultura lantzeko, baina batez ere jendea sortzen jartzeko. Gazteek mundu osoa daukate sakelakoan; aukera gehiago dute ezagutzeko, baina baita sortzeko ere. Tailerren bidez, musikarekin, dantzarekin, arte plastikoekin, antzerkiarekin... esperimentatzeko aukera izango dute, eta gero pilula batzuk sortuko dituzte, eta aldizkari digital batera igoko. Gustatzen zaiena sortuko

dute, eta bide batez, ezagutuko dute zer dagoen, euskal kulturaren erreferentzietatik abiatuko direlako. Lau sortzaile izan dira gurekin lanean, eta egin dute haien ekarpena: Oskar Alegria, Ines Osinaga, Oier Zuñiga eta Leire Urbeltz.

Hezkuntza ez da transmisioan eragile bakarra. Badira beste batzuk -etxea, komunikabideak... -, baina beti aipatzen da haien arteko atomizazioa eta kohesio falta.

Bai, hala da, baina zaila da. Ez dugu ahaztu behar gure komunitateak daukan tamaina daukala. Askoz gehiago dira kontsumitzaile potentzialak benetazkoak baino, eta horrek eskatzen du gogoeta bat. Une honetan, uste dut potentzialitate handia dagoela esperientzia eta hurbiltasunetik. Hezkuntzak ere hartu behar du horren kontzientzia. Arazoa da Nafarroan ikasleen erdiak ez duela euskararekin inolako harremanik hezkuntza arautuan. Hori tragedia da. Akats handia.

Zer jakinda atera beharko luke ikasle batek hezkuntza araututik?

Euskara eta euskal kultura hemengoak di-

renaren kontzientzia eduki beharko luke. Ez dela inongoa baino hobea, baina ezta eskasagoa ere. Ez dituela beste kultura batzuk ordezkatzeko, baina nortasuna emango diola, ikuspegi zabalenean, haritz bat hemengotzat identifikatzen dugunean bezala. Kultura ez dela gauza inposatua edo artifiziala, baizik eta adin guztietako jendeak sortzen eta partekatzen duena, txikia baina hurbila. COVID-19aren ondorioz ikasi dugu hirian ere txoriak badaudela, edo ez dela oso urrutira joan behar espazio ederrak bisitatzeko. Sentsazio hori atera beharko lukete gazteek, ez dela urrutira joan behar musika ona entzuteko, jende interesgarria ezagutzeko, inguruko gauza guztiei izena jartzen dien hizkuntza bat zainetatik sumatzeko.

Izen propioak ez dira inportante?

Izenak aldatzen dira: zuretzat oso inportantea izango da Txirrita eta Laboa ezagutzea, eta beste batentzat Skabidean, edo Anari, edo Oihana Bartra. Esperientzia da inportantea. Edo beste toki batzuetan egiten den zerbait euskaraz egitea, rapa, edo trapa. Jakin dezatela euskarak Takoneran oilar borroak egiteko ere balio duela. ●